

Erf.: Inbentarioko 2015 aldaketak  
Tx. zk.: 17/

Karmele Muñoa Arrigain andereak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak, jarraian zehazten dan gaiari buruz egiten dot honako

## **TXOSTENA**

### **Planteatutako gaia**

Udal inbentarioaren 2015. urteko aldaketak onartzea.

### **Nork eskatu dauen txostena**

Ofizioz.

### **Argudio juridikoak**

#### **a) Aurrekariak**

Bakarra: Legeak agintzen dauanari jarraiki, Udalaren eta Patronatu bien Inbentarioetako aldaketen zerrendak prestatu dira, Osoko Bilkureak onartzeko.

#### **b) Oinarriak**

Bakarra: Aplikagarria dan legedia kontutan hartuta, Osoko Bilkureak, gitxienez urtean behin, Ondasunen Inbentarioan egondako aldaketak egiaztatu behar duaz, Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua onartzen dauan 1372/1986 E.D.ko 33.1 artikulua jasotzen dauanaren arabera.

Hori dala eta, Osoko Bilkurearen eskumena danez, 2016ko 1143. zenbakidun Alkatetza Dekretu bidez onartutako Udalaren eta Patronatuetako Ondasunen Inbentarioetan egondako aldaketak berrestea proposatzen da, aldaketa horrek era egokian jasota geratu daitezana.

Informatzen doguna, legean oinarritutako beste edozein txostenen kalte barik.

Bermeon, 2017ko otsailaren 22an.

Karmele Muñoa Arrigain  
Behin-behineko idazkaria